

DK Bazkideak

2025
DK memoria





© Gorka Bravo

DK Bazkideak



2025. urte amaieran, **129.332** bazkide zituen **Donostia Kulturak**, aurreko urtean baino **3.064** txartel gehiagorekin. Bazkide horietatik ia **% 60** emakumeak dira, eta **% 76 Donostiako** biztanleak. **45 eta 64 urte** artekoen adin-tartea izan zen nagusi, eta **30 eta 44 urte** artekoen multzoa ondoren. Auzoen arabera, **Amarak** jarraitu zuen izaten kultura-zerbitzuen erabiltzaile gehien zuen barrutia (**% 19**); Amararen ondoren dago **Gros** (**% 13**), eta oso gertu **Antiguo-Ibaeta** (**% 12**), **Intxaurren** (**% 11**) eta **Altza** (**%10**) ere.

Kolektibo horrek osatzen du **Gipuzkoako kultura-zaleen klub handiena** eta, **DK txartelaren** inguruan, **Donostia Kulturak** herritar guztiei kulturara iristeko modua errazteko bokazioa bateratzen du. Horren adierazgarri agerikoena izan zen **udal liburutegien sarean** izan zuen erabilera orokortua - liburuak maileguan hartzeko identifikazio-sistema gisa- eta, programazio artistikoaren kasuan, zaleen fidelizazioa, zozketen, prezio murriztuen eta bestelako promozioen bitartez. Zentzu horretan, **San Telmo Museoa**, **Victoria Eugenia Antzokiak**, **Antzoki Zaharrak**, **Imanol Larzabal Aretoa**, **Intxaurren Kultur Etxeak**, **Larratxo Kultur Etxeak** eta **Gazteszenak DK txartelaren** bitartez kudeatu zituzten beraien publiko ezberdinenganako hurbileko estrategiak.

Bazkideentzako online atalean egon ziren eskuragai abantaila guztiak; **2024an**, **57.000** lagun zeuden atal horretan erregistratuta. Kolektibo hori, gainera, erakundeak bultzatutako ekimenak ezagutarazteko eta zabaltzeko funtsezko eragilea izan zen.

Ikuskizunetara sartzeko aukeraz harago, bazkideek **% 10eko gutxieneko deskontua** izan zuten **Donostia Kulturaren** ikastaroetan, argitalpenetan eta beste zerbitzu batzuetan. Halaber, txartelak aukera eman zuen beste kultura- eta prestakuntza-erakunde batzuetan ere abantailak izateko, hala nola **Basque Culinary Center & LABe (Tabakalera)**, **Zinemaldian**, **Chillida Lekun**, **Jazzaldian**, **Aquariumen**, **San Telmo Museoa**, **Dock of the Bay** jaialdian eta **UPV/EHuren Udako Ikastaroetan**.

Bestalde, **San Telmo Museoa** areagotu egin zituen abantaila horiek **STM&DK txartel mistoarekin**; horrela, beste prestazio batzuk gehitu zituen, hala nola **museora doan sartzeko aukera**, inaugurazioetarako gonbidapenak, zozketak eta deskontu espezifikoak. **2025ean**, **2.000** lagunek osatu zuten kolektibo hori.





© Gorka Bravo



Hona hemen **Donostia Kulturako bazkideen**
2025eko mapa:

DK **Bazkideak**
129.332

Buletinak

Agenda eta buletinak
Asteko agenda (bazkideak)
Asteko agenda (ez bazkideak)

Izena emandakoak

57.090
21.194
3.419

Webgunean erregistratutakoak:
49.443




Donostia Kultura Bazkideak: donostiarrak


Donostiarrak: **97.368 (75,29%)**

Ez donostiarrak: **31.964 (24,71%)**


GUZTIRA: **129.332**



Bazkide donostiarrak auzoka



Bazkideak adin-tartearen arabera




Bazkideak sexuaren arabera



77.447
EMAKUMEAK




51.885
GIZONAK



Bazkideen garapena 2016-2025

Urtero izena emandako bazkide berriak



Bazkide kopuruaren garapena azken hamar urteotan